



A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2003ko maiatzaren 6a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:20 **AMAIERA-ORDUA:** 21:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Andoni Sarasua Oliden, Eneko Dorronsoro Portularrume, Itziar Olariaga Larrañaga, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2003ko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2003ko aurrekontu propioaren exekuzioko oinarriak.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalaren 2002ko aurrekontu propioari dagokion 2/2002 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua Aldatzeko Espedientea kreditu inkorporazio bidezkoa da.



- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 1/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua Aldatzeko Espedientea kreditu transferentzia bidezkoa da.
- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Antillako hondartzako 1, 2 eta 3 zenbakidun eraikinak okupatzeko kontzesio administratiboaren adjudikaziodunekin izenpetutako kontratu administratiboei buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Luis Azkue Aldazek 'Muscuilu harria' kirol eta jolas elkartearen izenean aurkeztutako idatziaren bidez egindako eskaria. Idatzian Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergaren salbuespena eskatzen du.
- 7.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko hondartzako 3. Interbentzio Urbanistikorako Eremua (AIU3) urbanizatzeko proiektuari. Proiektua Orioko Udalak sustatu du eta Juan Eizmendi Aranalde arkitektoak idatzi du.
- 8.- Ahalmen zabala ematea, egoki bada, alkateari, Orioko Arau Subsidiarioetako 4.1.2 zonako —Azkue industriak eta inguruak— udal jabetzako partzela baten salerosketarako beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak izenpetu ditzan Orioko Udalaren izenean.
- 9.- Informazio publikoan jartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak berrikusi eta egokitzeko espedientearen Aurrerakina.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2003KO MARTXOAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Itziar Olariagak hartzen du hitza eta adierazten du esan-eginetako bigarren puntuan ez dela jaso berak esan zuen guztia. Aktan jasota dagoenaz gain, honako hau ere esan zuen: "Gaur egun bizi dugun egoeran ez dauzkagu bitarteko material eta giza bitarteko nahikoak gaia behar bezala lantzeko eta, ondorioz, ez dugu denborarik izan gaia aztertzeko merezi duen sakontasunarekin."

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatzarrak 2003ko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta, Itziar Olariagak bilkura honetan egin duen oharra gehituz.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2003KO AURREKONTU PROPIOAREN EXEKUZIOKO OINARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko martxoaren 26an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Udalaren 2003ko aurrekontu propioaren exekuzioko oinarriak.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2002KO AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 2/2002 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA KREDITU INKORPORAZIO BIDEZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko apirilaren 29an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2002ko aurrekontu propioari dagokion 2/2002 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 230.388,45 eurokoa da eta 2001eko aurrekontuko superabitaren hondarra erabiliz finantzatzen da. Kreditua aldatzeko espedientea kreditu inkorporazio bidezkoa da.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontu hartzailletza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.



Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2003KO AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 1/2003 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko apirilaren 29an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 1/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 53.106 eurokoa da. Kreditua aldatzeko espedientea kreditu transferentzia bidezkoa da.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontu hartzailletza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.



Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLAKO HONDARTZAKO 1, 2 ETA 3 ZENBAKIDUN ERAIKINAK OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN ADJUDIKAZIODUNEKIN IZENPETUTAKO KONTRATU ADMINISTRATIBOEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2003ko apirilaren 29an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- Orioko Antillako hondartzako 1, 2 eta 3 zenbakidun eraikinak okupatzeko kontzesio administratiboaren adjudikaziodunekin izenpetutako kontratu administratiboak zentzu honetan aldatzea:

Ordaintzeko era: urte bakoitzari dagokion ustiapeneko kanona ordainduta egon behar du urte horretako irailaren 30erako.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak: Kanona ez ordaintzea epea bete eta, gehienez, bi hilabete eta erdian. Ondorioz, urte bakoitzari dagokion ustiapeneko kanona, beranduenez, ordainduta egon behar du urte horretako abenduaren 15erako.

2.- Orioko Antillako hondartzako 1 zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren adjudikaziodunak ordaintzeko daukan 2002ko ustiapeneko kanona bost urtetan banatuta ordaindu beharko du: 2003tik 2007ra, biak barne.

3.- Orioko Antillako hondartzako 2 eta 3 zenbakidun eraikinak okupatzeko kontzesio administratiboaren adjudikazioaren titularra aldatzeko baimena ematea. Lehengo



titularra Jose Maria Berlosa Berzal zen bi eraikinetarako; eta adjudikaziodun berriak, berriz, honako hauek izango dira: Jose Maria Berlosa Centeno, 2. eraikinerako eta Jose Joaquin Goikoetxea Eizagirre, 3. eraikinerako. Aldaketa hori ahalbideratzeko, aldeztu aurretik, bi eraikinetako adjudikaziodunek eguneratuta eduki behar dituzte Udalarekin dituzten zorrak. 3. eraikinaren kasuan, gainera, zor horiek eguneratzeko hamabost eguneko epea ezartzen zaio adjudikaziodunari; eta, epe horren barruan zorrak ordaintzen ez baditu, iraungitzat emango da bere kontratu administratiboa.

4.- Aurreko erabaki guztien berri Estatu Kontseiluari ematea, jakin dezan eta horren arabera joka dezan.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, LUIS AZKUE ALDAZEK 'MUSCUILU HARRIA' KIROL ETA JOLAS ELKARTEAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO IDATZIAREN BIDEZ EGINDAKO ESKARIA. IDATZIAN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN SALBUESPENA ESKATZEN DU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko apirilaren 29an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA Luis Azkue Aldazek 'Muscuilu harria' kirol eta jolas elkartearen izenean aurkeztutako idatziaren bidez egindako eskaria, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzeko.

7.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZAKO 3. INTERBENTZIO URBANISTIKORAKO EREMUA (AIU3) URBANIZATZEKO PROIEKTUARI. PROIEKTUA ORIOKO UDALAK SUSTATU DU ETA JUAN EIZMENDI ARANALDE ARKITEKTOAK IDATZI DU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Ikusita aipatutako urbanizatzeko proiektua jendaurrean egon dela hamabost laneguneko epean eta ez dela inolako alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):



BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA Orioko hondartzako 3. Interbentzio Urbanistikorako Eremua (AIU3) urbanizatzeko proiektuari. Proiektua Orioko Udalak sustatu du eta Juan Eizmendi Aranalde arkitektoak idatzi du.

Behin betiko onarpen honetan ez zaio inolako aldaketarik egiten Udalbatzarrak 2003ko martxoaren 25ean egindako bilkuran hartutako lehen onarpeneko erabakiari.

19:55 orduak direla, Andoni Sarasua Oliden zinegotziak bilkura uzten du.

8.- AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ALKATEARI, ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 4.1.2 ZONAKO —AZKUE INDUSTRIAK ETA INGURUAK— UDAL JABETZAKO PARTZELA BATEN SALEROSKETARAKO BEHARREZKO AGIRI PUBLIKO ZEIN PRIVATU GUZTIAK IZENPETU DITZAN ORIOKO UDALAREN IZENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 6 boto: Arruabarrena (EAJ), Etxeberria (EAJ), Eneko Olariaga (EAJ), Garate (EAJ), Leunda (EA) eta Cotado (EA). 3 abstentzio: Itziar Olariaga (Abertzale Sozialistak), Dorronsoro (Abertzale Sozialistak) eta Barrenetxea (Abertzale Sozialistak)]:

AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, Orioko Arau Subsidiarioetako 4.1.2 zonako —Azkue industriak eta inguruak— udal jabetzako partzela baten salerosketarako beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak izenpetu ditzan Orioko Udalaren izenean. Udal jabetzako partzela horren salerosketako prezioa 328.644,85 eurokoa da.

9.- INFORMAZIO PUBLIKOAN JARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSI ETA EGOKITZEKO ESPEDIENTEAREN AURRERAKINA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Itziar Olariagak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere talde politikoak, gai honetan aldeko botoa emateko, nahi duela aldez aurretik Udalbatzarrak onartzea azken Hirigintzako batzorde informatzailean Abertzale Sozialistak taldeak aurkeztu zuen idatziaren edukia. Idatzi horretan honako proposamenak egiten dira:



1.- Arau Subsidiarioen dokumentua oinarritzat hartuta, eredu eta irizpide orokorrak finkatzea:

- Etxebizitza beharren azterketa serio bat egitea.
- Herriko eragileak eta udal teknikariak baliatuz, dotazio mailan planteatzen diren kokalekuak eta eraikuntzen eskaintzaren egokitasuna aztertzea.

2.- Fase honek ekar dezakeen birplanteaketa burutu ondoren, egokiagoa ikusten dugu txostena teknikoki aztertzea.

Alkateak hartzen du hitza eta zera adierazten du: prest legokeela Abertzale Sozialistak taldeak aurkeztutako idatzi horren edukia onartzeko, baina aldez aurretik kontuan hartu behar dela une honetan egiten dena dela, bakar-bakarrik, arau subsidiarioak berrikusi eta egokitzeko espedientearen aurrerakina informazio publikoan jartzea, interesatutako korporazio, elkarte eta partikularrek iradokizunak eta, kasua bada, planeamenduko beste alternatiba batzuk aurkezteko. Beraz, garrantzitsua dela, helburu hori egoki betetzeko, jendaurreko epea zabala izatea eta berak proposatzen duela hiru hilabetekoa izatea. Behin jendaurreko epea bukatutakoan izango da garaia aurkeztutako iradokizun edo alternatibak aztertzeko eta orduan ikusiko da Abertzale Sozialistak taldeak aurkeztutako idatziarekin bat datozen eta osotasunean aztertuko da gaia eta orduan egingo dira beharrezkoak diren azterketa edo ikerketak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baieztoko boto):

1.- **INFORMAZIO PUBLIKOAN JARTZEA**, hiru hilabeteko epeaz, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak berrikusi eta egokitzeko espedientearen Aurrerakina, interesatutako korporazio, elkarte eta partikularrek iradokizunak eta, kasua bada, planeamendurako beste alternatiba batzuk aurkezteko.

2.- Hiru hilabeteko epe hori beste hilabete batez luzatu ahal izango da, beharra ikusiz gero.

3.- Aipatutako espedientea informazio publikoan jartzeko erabaki hau Abertzale Sozialistak taldeak aurkeztutako idatzia kontuan hartuz hartzen da, kontuan hartuta, baita ere, alkateak horri buruz egin dituen adierazpenak.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Itziar Olariagak hartzen du hitza eta zera galdetzen du: Urola Kostako Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari egindako alegazioen edukia zein izan den.



Alkateak erantzuten dio esanez alegazioak Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenen arabera aurkeztu direla.

Ez zen izan eskari edo galdera gehiagorik.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia aldeztu aurretik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren (9 baieztatu boto):

11.- ORIOKO UDALEKO ABERTZALE SOZIALISTAK TALDEAK AURKEZTUTAKO UDALBILTZARI BURUZKO ADIERAZPENA ETA MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Abertzale Sozialistak taldeak aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

Udalbiltzaren adierazpena eta bozkatzeko mozioa:

Bart goizaldean, iluntasunean babesturik, Espainiako 'justiziak' Udalbiltza desagiteko lanari ekin dio. Epaila arrotz baten aginduz eta atzerriko polizi indarren bitartez, hainbat euskal hautetsi eta Udalbiltzako langile zenbait atxilotu dituzte. Horrezaz gain, Bizkaia, Araba, Nafarroa Garaia eta Gipuzkoako egoitzak dokumentazioz hustu eta egoitzak itxi dituzte.

Udalbiltzak udalak eta udal hautetsiak biltzen ditu. Gaur gaurkoz Udalbiltza da Euskal Herri osoa biltzen duen izaera nazionalako instituzio bakarra. Gure herriaren izaera ukatu duten indarren betidaniko helburua izan da herri honek instituzio nazionalik ez izatea.

1999an Udal Hautetsiek Udalbiltzaren sorrerarekin Euskal Herri osoa bere baitan biltzen zuen instituzioa sortzeko pausu historikoa eman zuten. Pauso horri esker urte hauetan nazio mailako instituzionalizazio prozesu bat abian jarri dugu.

Horren babesean Udalbiltzak (eta baita eragile sozial, sindikal eta politikoen ere) mahai gainean gure herriak bizi duen gatazkari konponbidea bilatzeko funtsezko proposamenak jarri ditu mahai gainean. Aipa ditzagun horien artean batez ere: Euskal Herriaren Eskubideen Karta (Herri honen eta bere herritarren eskubideak aitortzen dituen); Euskal Herria bakea eta demokraziaren bidean jartzeko proposamena (Gatazkaren konponbiderako oinarriak proposatzen dituenak) edo nazio eztabaida gunea (Herri honek bere geroa erabakitzeko bazterketarik gabeko eztabaida-gunea).

Urrats horiek edo antzeko beste batzuk ezinbestekoak dira Herri honek behar duen behin betiko konponbidera iristeko. Estatu espainola ematen ari den urratsekin argi adierazi zaio herri honi ez duela ezer aldatzeko borondaterik.



Gerra eta sufrimenduaren bidez herri hau desegiteko erabaki zaharra gauzatzeko ahaleaginean ari da. Estatu espainola Euskal Herriak bere burua subjektu politiko gisa egituratzeko ahalegin guztiak zapuzten ihardun da. Udalbiltza sortu zenetik lau urte joan dira eta urte hauetan eraso horiek etengabekoak izan dira.

Urrats hau, azken hilabeteotan Estatu espainolak eman dituen beste batzuekin kateaturik dator. Euskal Herriaren nazio izaera ukatzearekin batera, euskal herritarrek bere ordezkariak demokratikoki hautatzeko duten eskubidea indarrak gabe utzi nahi da, eta horrekin batera biltzeko eskubidea, bizitza publikoan parte hartzekoa, bozkatzekoa, adierazpen askatasuna...

Eraso honek, beraz, Euskal Herriak bere buruari eman dion eta herri baten bizitzarako ezinbestekoa den instituzionalizazioa desegitea du helburu Euskal Herriaren beraren izaera ukatzen eta desegiteko ahaleginetan ari dira.

Hori guztia kontutan hartuta, Udal Batzar honi honako puntuok proposatzen dizkiogu:

1.- Udal Batzar honek berretsi ditzala Udalbiltzaren sorreran Udal hautetsiek bere egindako bost ardatzak (1999ko otsailaren 6an Iruñean onartua):

a.- Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea

b.- Euskal Herriaren egitura politikoa eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta zazpi euskal herrialdeetako udal ordezkariak esparru erkidean hartzeko asmoz. Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta Euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.

c.- Instituzio iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondatea pilatu eta batzeko sortua da. Izan ere instituzioa nazio esparrukoa denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu dinamika politikoarekin bat eginez.

Egituratze honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu beharko dira, non euskaldunen partehartzea funtsezkoa litzateke eta herrialde historiko guztien eraentza errespetatuko litzateke.

d.- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Instituzioa zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalean bere jarduera garatzen duen hautetsi guztientzat politika, kultur soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzak esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena, ongizatea... Lehendabizi, Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzak egingo litzateke; geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka



erkideei modu bateratu eta homogeenan egingo litzaieke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeei... bideratuko litzaieke.

e.- Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

2.- Euskal Herriaren aitortza ekarriko duen dinamika nazionalen aldeko apustua egin dezala (Maila instituzional, ekonomiko, sozial edo kulturean), horrek soilik ekarriko baitu gure herriak bere geroa ziurtatzeko behar duen aitortza, eta gatazkaren konponbide demokratiKoa.

3.- Herritarrak dei ditzala hilaren 30ean, arratsaldeko 8:00etan udaletxeen aurrean ordu erdiz egingo diren bilkuretan parte hartzera.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du EAJ eta EAKo udal taldeek mozio alternatibo bat aurkeztu nahi diotela Udalbatzarrari. Mozio alternatibo horrek honela dio, hitzez hitz:

Apirilaren 29an ezker abertzalearen Udal Hautetsien Batzordearen aurka operazio poliziala burutu da. Berriro ere, beste eraso baten aurrean aurkitzen gara, estrategi jakin baten parte den eraso. Bide horretatik, Euskal Herrian geroz eta enfrentamendu handiagoa sortzen duena eta sortuko duena, desestabilizazioa eta tentsioa areagotuz.

Operazio juridiko-politiko hau zuzen zuzenean ideologia askatasunaren kontra doa, proiektu politikoak defendatu eta zabaltzeko hesiak ipiniaz eta aniztasun politikoa ukatuaz.

Horretaz gain, erabat onartezina da Udalbiltza ETaren aginduz sortua izan den Erakundea dela leporatu nahi izana. Azkenaldi honetan gertatzen ari denari jarraituz, aberri eraikuntza, euskara, eta oro har euskaldun izatearekin zerikusia duen oro delitu bihurtzeko dinamika maltzur baten aurrean aurkitzen gara.

Hori guztia kontutan hartuta, Udal Batzar honi honako puntuok proposatzen dizkiogu:

1.- Udal Batzar honek berretsi ditzala Udalbiltzaren sorreran Udal Hautetsiek bere egindako bost ardatzak (1999ko Otsailaren 6an Iruñean onartua):

a.- Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.

b.- Euskal Herriaren egitura politikoa eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta zazpi euskal herrialdeetako udal ordezkariak esparru erkidean hartzeko asmoz.



Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta Euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.

c.- Instituzio iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondatea pilatu eta batzeko sortua da. Izan ere instituzioa nazio esparruko denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu dinamika politikoarekin bat eginez.

Egituratze honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu beharko dira, non euskaldunen partehartzea funtsezkoa litzateke eta herrialde historiko guztien eraentza errespetatuko lirateke.

d.- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Instituzioa zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalean bere jardura garatzen duen hautetsi guztientzat politika, kultur soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzak esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena, ongizatea...

Lehendabizi Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzak egingo litzateke: geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu eta homogeneoan egingo litzaieke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeei... bideratuko litzaieke.

e.- Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

2.- Euskal Herriaren aitortza ekarriko duen dinamika nazionalen aldeko apustua egin dezala (Maila instituzional, ekonomiko, sozial edo kulturean), horrek soilik ekarriko baitu gure herriak bere geroa ziurtatzeko behar duen aitortza, eta gatazkaren konponbide demokratikoa.

3.- Herritarrak dei ditzala hilaren 30ean, arratsaldeko 8:00etan udaletxeen aurrean ordu erdiz egingo diren bilkuretan parte hartzera.

Itziar Olariagak hartzen du hitza eta adierazten du gaur egun bizi duten egoeran ezinezkoa zaiela udal konpromisoak betetzea eta, beraz, hemendik aurrera buru eta belarri arituko direla ezker abertzaleak erakundeetan izan behar duen ordezkaritza defenditzen.

Alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: batetik, bozkatu behar diren puntuak bi mozioetan berdina direla; eta, bestetik, bi mozioen azken puntuak aipatzen den kontzentrazioaren eguna aldatzea proposatzen duela: mozioetan



hilaren 30a aipatzen da, eta berak, apirilaren 30a dagoeneko pasata dagoenez, maiatzaren 8an egitea proposatzen duela, arratsaldeko zortzietan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1.- **BERRESTEA** Udalbiltzaren sorreran Udal Hautetsiek bere egindako bost ardatzak (1999ko otsailaren 6an Iruñean onartua):

a.- Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.

b.- Euskal Herriaren egitura politikoa eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta zazpi euskal herrialdeetako udal ordezkariak esparru erkidean hartzeko asmoz.

Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta Euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.

c.- Institutuzio iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondatea pilatu eta batzeko sortua da. Izan ere instituzioa nazio esparruko denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu dinamika politikoarekin bat eginez.

Egituratze honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu beharko dira, non euskaldunen partehartzea funtsezkoa litzateke eta herrialde historiko guztien eraientza errespetatuko lirateke.

d.- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Institutuzioa zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalean bere jardura garatzen duen hautetsi guztientzat politika, kultur soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzak esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena, ongizatea...

Lehendabizi Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzkoa egingo litzateke: geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu eta homogeen egingo litzaieke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeei... bideratuko litzaieke.

e.- Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

2.- Euskal Herriaren aitortza ekarriko duen dinamika nazionalen aldeko apustua egitea (maila instituzional, ekonomiko, sozial edo kulturalean), horrek soilik ekarriko



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/05/06

baitu gure herriak bere geroa ziurtatzeko behar duen aitortza, eta gatazkaren konponbide demokratikoa.

3.- **HERRITARRAK DEITZEA** maiatzaren 8an, arratsaldeko 8:00etan udaletxearen aurrean ordu erdiz egingo den bilkuran parte hartzera.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,